

Pentekoste ondorengo Igandea

Maitzaren 26an

HIRUTASUN GUZTIZ SANTUA

Kontenplalarien aldeko Jardunaldia

Agurra

Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta Jainko Aitaren maitasuna eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Hirutasuna da Kristauon Jainkoa. Horixe aitortzen dugu Kredoan, Aita, Semea eta Espiritu Santua sinesten ditugula aitortuz. Horixe adierazten dugu egunean zehar, otoitzean nahiz ospakizunean kristauon seinale den gurutzea gudan egitean. Kreatzaile, salbatzaile eta bizi-emaile dugun Jainko horrek markatzen gaitu.

Otoitzari emanak bizi direnak, lekaide eta lekaima kontenplalariak gogoratuko ditugu gaur. Eliza osoaren alde, mundu osoaren alde otoitzean bizi dira beraiek. Gaur guk egingo dugu otoitz bereziki beraien alde, Jainkoari eskerrak emanez, Eukaristia santu honetan.

Damu-otoitza

Eska dezagun apaltasunez Jainkoaren barkamena eta errukia:

- Jesus Jauna, zeruko Aita ezagutzera **eman** diguzuna: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, Espiritu Santua gure bihotz barrenean **jarri** diguzuna: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, Aitarekin eta Espiritu Santuarekin elkar maitasunean **an** bizi zarena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko Aita, egiaren Hitza den zeure Semea
eta Espiritu santutzailea bidali dituzu mundura
gizon-emakumeei zeure misterio miragarria agertzeko;
egizu, egiazko sinesmena aitortuz,
ezagut dezagula betiereko Hirutasunaren aintza
eta gurtu dezagula Batasun ahalguztiduna.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Entzungo ditugun hitzak, egiazko fededunen esperientziak dira, Jainkoari buruz bihotzetik bihotzera mintzatzen direnak. Entzun ditzagun arretaz eta esker onez biziaren hitz hauek.

Lehenengo irakurgaia (*Dt 4, 32-34. 39-40*)

Deuteronomioa liburutik

Moises honela mintzatu zitzaion Israel herriari: «Galdetu antzinako garaiei, zu baino lehenago izandakoei, Jaunak gizakia munduan sortu zuenetik hasita; galdetu ea inoiz horrelakorik gertatu edota entzun izan den munduaren ertz batetik besteraino. Ba ote da herririk, zuk bezala Jainkoa suaren erditik mintzatzen entzun eta bizirik gelditu denik? Izan al da inoiz jainkorik, herri bat beste herri baten menpetik atera eta beretzat hartzen saiatu denik? Ba, horixe egin zuen Jaunak, zuen Jainkoak, zuen begi-bistan Egipton;

ezaugarri, mirari eta egintza harrigarritz, borrokaren bidez, ahalmen handiz, esku indartsuz eta izua zabalduz askatu zintuzten.

Aitortu, beraz, gaur, eta izan beti gogoan Jauna dela Jainkoa, goian zeruan eta behean lurrean; ez da besterik. Bete gaur ematen dizkizudan legeak eta aginduak, zoriontsu izan zaitezten zeu eta zure ondorengo seme-alabak, eta luzaro bizi, Jaunak, zeure Jainkoak, betiko emango dizun lurraldean».

Erantzun-salmoa (Sal 33 [32], 4-5. 6 eta 9. 18-19. 20 eta 22)

The image shows musical notation for the hymn. It consists of three staves. The first staff has a treble clef and a key signature of one flat (B-flat). The time signature is 2/4. The melody is: G4 (quarter), A4 (quarter), B4 (quarter), C5 (quarter), B4-A4 (beamed eighth notes), G4 (quarter), F4 (quarter), E4 (quarter), D4 (quarter), C4 (half). The second staff has a treble clef and a key signature of one flat. The time signature is 3/4. The melody is: B3 (quarter), A3 (quarter), G3 (quarter), F3 (quarter), E3 (quarter), D3 (quarter), C3 (half). The third staff has a treble clef and a key signature of one flat. The time signature is 2/4. The melody is: G4 (quarter), A4 (quarter), B4 (quarter), C5 (quarter), B4-A4 (beamed eighth notes), G4 (quarter), F4 (quarter), E4 (quarter), D4 (quarter), C4 (half).

Bai do-ha - tsu, Jau - nak be-re oi-nor - de hau-ta -
tu du - en he - rri - a.

- ∞. Zuzena da Jaunaren **ren** hitza,
fidagarria hark egin duen **guztia**.
Justizia eta zuzenbidea du maite,
Jaunaren maitasunaz dago **lurra** betea. ∞.
- ∞. Jaunak bere hitzaz egin du **ortzia**,
bere aho-arnasaz astro **guztiak**.
Izan ere, hark esan, eta **dena** egin zen;
hark agindu, eta izaten **du** jarraitzen. ∞.
- ∞. Jauna arduratzen da begirune diotenez,
haren maitasunean itxaroten **dutenez**,
haiek heriotzatik **libratzeko**
eta gosetean bizirik **gordetzeko**. ∞.



∇. Guk Jaunagan dugu **esperantza**,
bera dugu laguntzaile eta **babesle**.
Betor gurekin, Jauna, zure **maitasuna**,
Zugan baitugu jarria **itxaropena**. ∇.

Bigarren irakurgaia (*Erm 8, 14-17*)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Jainkoaren Espirituak gidatzen dituenak, horiexek dira Jainkoaren seme-alaba. Zuek ez duzue hartu esklabo egiten zaituzten espiritua, berriz ere beldurrez bizitzera eramango zaituztena; zuek seme-alaba egiten zaituzten Espiritua hartu duzue, eta Espirituaren bidez «Abba!», hau da, «Aita!», hots egiten diogu Jainkoari.

Espiritu honek berak, gure espirituarekin bat eginez, Jainkoaren seme-alaba garela aitortzen du; eta, seme-alaba bagara, baita oinordeko ere, Jainkoaren oinordeko eta Kristoren oinordekide; zeren, nekeetan Kristoren kideko baldin bagara, aintzan ere haren kideko izango baikara.

Aleluia (Ik. *Ap 1, 8b*)



∇. Aintza Aitari, eta **Semeari**,
eta Espiritu **Santuari**,
baden, eta bazen, eta etortzekoa den **Jainkoari**! ∇.

Ebanjelioa (Mt 28, 16-20)

Homiliarako argibideak

Bakarra da

Erljio monoteistak, Jainko askodun erlijioak, jainkorik gabeko bizimoldeak... era askotako jarrera eta jokaerak daude han eta hemen. Jesus gabeko Jainkozaleak, Jainkorik gabeko Jesuszaleak, Jainko gabeko eta Jesus gabeko ateoak... Eta horien bereizketan sartuko bagina, betikoa gertatuko litzaiguke, eztabaida azken gabea. Azken gabea eta alferrikakoa. Hirutasunaren festaburua ospatzen dugu fededunok igande honetan. Hemen ere bilatu izan da eztabaidarako aitzakia: zer esan nahi du Jainko bat izatea hiru pertsonatan?, nola hiru pertsona Jainko bakarra izanik?

Zoritxarrez, azken batean eta denbora luzez, alferrikako zenbaki-arietan ibili izan gara gure elizetan ere. Zenbaitek, gainera, horretan jarri du bere borondate osoa eta zenbaki-arietaren arabera neurtu izan du jendearen fedea. Eta ez da hori inondik inora!

Auzia badakizu zer den? Honako hauxe: nik «ikusi» ote dut, «bizi» ote dut, «sentitu» ote dut, «sumatu» ote dut Jainko bakarraren esperientzia? Edo, galdera beste aldetik eginez, Jainkoaren esperientzia era hain sakonean bizi izan ote dut, «bakarra» dela ikusteko? Jainkoa bizitzaren «florero» bezala hartzen denean, asko eta era askotakoak izan daitezke J(j)ainkoak. Baina, Jainkoa ez da bitziza apaintzeko «florero».

Esaten da, Jainko guztiek balio bera dutela eta errespetatu egin behar dela guztien esperientzia. Errespetatu, noski! Horixe behar genuen, ez errespetatzea! Baina, Jainko guztiek teorian balio bera badute ere, galdera beste hau da: niri nor egin zait, zein Jainko egin zait, bihotzaren jabe? Betiko adibidea jarriko dizut beste behin: emakume guztiek duintasun bera dute eta teorian balio ere berdin balio dute;

baina, bat egiten zaizunean bihotzaren jabe, emakume batez enamoratzeko zaren, emakume bakarra daukazu zeuregan! Eta, alderantziz, gizonaren kasuan ere berdin da.

Jainkoari gagozkiola, beraz, galdera hau da: Jesusen Jainkoa egin al zait bihotzaren jabe? Mendekostez ospatzen genuen Espirituak barrutik eman didan argiak Jesusen Jainkoa «esperientziaz ezagutzera» ekarri al nau? Hori gertatu baldin bazaizu, Jesusen Jainkoa «ezagutu» duzula, argi eta garbi ikusten duzu Jainkoa bakarra dela. Errespetatu denak egingo dituzu, baina zuretzat ez da besterik, Jesusen Jainkoa baino. Kristau-sinesmenaren esperientzia egin duenak «badaki» ez dela besterik.

«Esperientziaz ezagutu» esan dut, eta hala da. Kontua ez da Jainkoen filosofian aditua izatea, baizik Jainkoaren esperientzia egitea. Eta, atrebentzia eta guzti, esango nuke, gure eliztarren artean Jainkoaren esperientzia gutxi landu dugula. Eta gero nahasketak etortzen dira: Jainkoa Elizaren jokaeraren galbahean pasatzen da; eta nola Eliza gaizki dabilen, beste Jainko batzuk erakargarriago egiten zaizkigu. Elizak badu, noski, bere erantzukizuna, Jainkoaren irudi garbia ematen ez duelako; baina erantzukizun handiagoa duela esango nuke, Jainkoaren esperientzia lantzen ez duelako.

Nola landu daiteke Jainkoaren esperientzia, Jainkoa ez ikusi, ez ezagutu, ez entzun, ez neurtu ezin dugularik? Bide bakarra daukagu: Jesusen bidez hurbiltzea Jainkoarengana. Jesus da Jainkoaren argazkia, Jesus da Jainkoaren definizioa. Jesus da Jainkoaren neurria, Jesus da Jainkoaren hitza. Jesusi ere begira diezaiokegu, ordea, giza begi hutsez! Espirituak ematen du barruko begia Jesusengan Jainkoa ikusi eta ezagutzeko. Espirituaren argitan Jesus irakurriz Jainkoa ezagutzen da.

Eta, dudarik gabe, Jesusen Jainkoa «ezagutzen» duzunean, haren egintza askatzailea «ikusten» duzunean, haren dohaina «gozatzen» duzunean, haren presentzia askatzailea «sumatzen» duzunean,

badakizu ez dela beste Jainkorik. Jesusen Jainko horrek bihotza hartzen dizu eta bihotzeko «bakar» egiten zaizu. Adituek eta filosofoek, teologoek eta moralistek, erlijio-zientzialariek, jarrai dezatela beren eztabaidetan. Zuri bihotza Jesusen Jainkoak harrapatu dizu, eta «bakarra» da!

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egiogun otoitz Aita maitagarri dugun Jainkoari, Jesu Kristogan bere maitasuna agertu digunari eta Espirituaz eragiten digunari.

—Jainko Aita Sortzaileak mundua bere betera eraman dezan, eta hitz emandako zero-lur berriak sorraraz ditzan, gizadi osoak egiazko zoriona aurkitu eta Bere aurpegi aintzatsua goza ahal izateko. Eska diezaiogun Jaunari.

—Gizon eginik Elizarekin bat egin zen Jainkoaren Seme Bakarrak, eman diezaiola Elizari berari emazte bezala erantzuteko Bere maitasun betea. Eska diezaiogun Jaunari.

—Mundua bere dohainez aberasten duen Jaunaren Espiritua behartsuentzat aita, nahigabetuentzat atsedean, gaixoentzat osasun eta erorientzat indar gerta dadin. Eska diezaiogun Jaunari.

—Hirutan bakarra den Jainkoaren misterioa ezagutzen dugunok, Haren berri eman diezaiegun ezagutzen ez dutenei, pozez ezagutu dezaten Aita, Seme eta Espiritu agertu zaigun Jainkoa. Eska diezaiogun Jaunari.

Goi-goiko Jainkoa, bataioaren bidez seme-alaba egin gaituzu Zure Seme bakarrarengan; entzun “Aita” esanarazten digun Espirituari, eta egizu, Zure Semearen deiari erantzunez, herri guztiei zabal dezagula beti eskaintzen diezun salbamenaren berri ona. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Jainko gure Jauna,
zure izen santuari dei egiten diogu:
egin itzazu santu, zeure ahalmenaz,
aurkezten dizkizugun dohain hauek,
eta horien bidez bihur gaitzazu guztiok Zeuretzat
betiko opari atsegingarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jainko gure Jauna, betiereko Hirutasun Santua
eta haren Batasun hautsezina aitortu dugu;
egizu, hartu dugun sakramentu honetan
aurki dezagula gorputz-arimen osasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Hirutasun Santuaren ondorengo Igandea
Ekainaren 2an
KRISTOREN GORPUTZ-ODOL SANTUAK

Caritasen Jardunaldi berezia

Agurra

Jesu Kristoren grazia eta bakea izan bitez zuekin

Sarrerako oharpena

Ongietorri! Kristoren gorputz-odolen jaiia dugu gaur. Eukaristia ospakizunari berari eta, honek gure bizitzan duen luzapenari begira jartzen gaitu gaurko jaiak. Gure lanetan, gure izate osoan, aurkitzen ditugun pertsonetan presente egiten da bizi-bizi Eukaristiaren dohaina. Gure bizitzaren erdigune dira ogi-ardo hauek. Gure ogi eta ardoari (gure bizitzako gauza apalei) izen berria, izate berria ematen baitie. Hauxe da ba gaur ospatzen duguna, Caritassek gogorarazten dizkigun behartsuak ahaztu gabe: beraiek gertatzen baitira Eukaristia, esker on.

Damu-otoitza

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak misterio santuak ospatzeko gai izan gaitzen

—Jesus Jauna, zerutik jaitsi zen **O**gia zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, betiko bizia ematen duen **O**gia zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure biziaz janar**it**zen gaituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko,
sakramentu harrigarri honetan
zeure heriotzaren oroigarria utzi diguzu;
egizu, gorets dezagula fede biziz
zure Gorputz Odolen misterioa,
geuregan zure erospenaren ondorenak suma ditzagun beti.
Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Basamortuko lehortean eta gosetean ikusten dugu Israel herria gaurkoan. Zailtasunean eta minean Jainkoa gertuko agertzen zaie, eta agertzen zaigu guri ere elkarren maitasunean bizi bagara eta gure bizitza Jesusen oroigarri egiten badugu.

Lehenengo irakurgaia (*Ir 24, 3-8*)

Irteera liburutik

Egun haietan, Moisesek Jaunaren hitz eta erabaki guztiak jakinarazi zizkion herriari, eta herri osoak, aho batez, erantzun zion: «Jaunak esandako guztia egingo dugu».

Jaunak esandako guztia idatzi zien Moisesek. Biharamunean, goizean goiz jaikirik, aldarea eraiki zuen mendi-oinean, eta hamabi zutarri ipini zituen Israelgo hamabi leinuen izenean. Ondoren, zekorrak hil eta Jaunari erre-oparitzat eta elkartasun-oparitzat eskaintzeko agindu zien israeldar gazte batzuei. Odolaren erdia hartu eta ontzietan ipini zuen Moisesek, eta beste erdia aldare gainean isuri.

Gero, itun-liburua hartu eta herriari irakurri zion. Herriak erantzun zuen: «Obedituko dugu eta beteko Jaunak esandako guztia». Odola hartu eta herriaren gain zirtatu zuen Moisesek, esanez: «Xedapen hauen guztien arabera Jaunak zuekin burutu duen itunaren ezaugarria da odol hau».

Erantzun-salmoa (Sal 116 [115], 12-13. 15-16bc. 17-18)

Sal - ba - men - e - don - tzi - a dut har - tu - ko, e -
 ta Jau - na - ren i - ze - na dei - tu - ko.

- ✠. Nola ordainduko diot **Jaunari**
 egin didan on **guztia**?
 Salbamen-edontzia dut **altxatuko**
 eta Jaunaren izenari dei **gingo**. **R̃.**
- ✠. Mingarri zaio **Jaunari**
 bere fededunen heriotza.
 Zure zerbitzari ezereza naiz, Jauna,
 askatu dituzu nire **kateak**. **R̃.**
- ✠. Gorespen-oparia dizut es**kainiko**
 eta Jaunaren izenari dei **gingo**.
 Beteko dizkiot Jaunari promesak,
 herri guztiaren **aurrean**. **R̃.**

Bigarren irakurgaia (Hb 9, 11-15)

Hebrearrei egindako epistolatik

Senideok: Kristo, beti iraungo duten ondasunen apaiz nagusi bezala etorri zaigu; haren etxola handiagoa eta osoagoa da; ez giza eskuz egina, hau da, sortutako mundu honetakoa; Kristo ez baita Santutegian aker-odolez, ez zekor-odolez sartu, bere-bere odolaz eta behin betiko baizik, honela betiko askatasuna irabazirik.

Aker-odolak eta zezen-odolak, eta bigantxa errearen hauts zipriztinduak, kutsudunak garbitzeko indarra baldin badu, azaleko garbitasuna emanez, zenbatez indartsuago ez da izango Kristoren odola, gure barrua egite uste1etatik garbitzeko, guk Jaungoiko bizia gurtu dezagun, betiko Espirituaren indarrez bere burua Jaungoikoari opari garbi eskaini dionez gero!

Horregatik, Kristo elkargo berri baten bitartekoa da, eta heriotza bat izan da, lehengo elkargoko bekatuak ordaintzeko; horre1a, «deituek» betiko oinordetasunaren agintzaria berengana dezaten.

Aleluia (Jn 6, 51-52a)



℣. Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia, **di**o Jaunak; ogi honetatik jaten duena betiko **bi**ziko da. ℟.

Ebanjelioa (Mt 14, 12-16. 22-26)

Homiliarako argibideak

Odoletan sinatua

Odola gauza serioa da. Odola bizia da. Odola pertsona bera da bere betetasunean. Odolarekin, beraz, ez dago jolas egiterik. Odola galtzea, bizia galtzea da. Odola kentzea, bizia kentzea. Edozer gauzarengatik ez da odolaren prezioa ordaintzen. Odola balio izateko, norbait oso maitatua behar du izan. Ez dago gauzarik, odola merezi duenik. Izatekotan ere, pertsona behar du izan eta ez edonor; zeure maiteena.

Kristoren gorputz-odolak ospatzen ditugun festaburu honetan, Jesus bere gorputz entregatuaz eta bere odol isuriaz ari zaigu. Azken Afariko une nagusian, biharamunean gurutzean gertatuko dena aditzera eman nahi digunean, Jesusek, dena eman nahirik, bere gorputza entregatzen du eta bere odola isurtzen. Eta horretan erakusten duen maitasuna behin betiko bermatua eta sinatua geratzen da. Odolaren sinadura gorriz betiko bermatua. Ez dago maitasun-ezaugarri handiagorik erakusterik.

Badakit, Eukaristia ospatzean, ezaugarri ikusgarri honi ez diogula halako betikotasun eta sakontasun handia ikusten. Ospatzearen ospatzeaz, azkenean dena balio gabetu egiten zaigu. Eta gaur lasaitasun ederrean entzuten ditugu era honetako gauzak. «Hau da nire gorputza, zuentzat emana», «hau da nire odola, zuentzat isuria», eta gu lasai. Ohiturakeria besterik erakutsiko ez balu gure lasaitasun horrek, tira! Baina uste dut sinesmenik eza erakusten duela, eta hori larriagoa da.

Kristoren gorputz-odolen festaburua ospatzeak Eukaristiaren sakoneko egia eta gertaera azpimarratzen gaitza. Jaunaren maitasunaren bermea ematen zaigu Eukaristian eta elkartari funtsa ematen dio, maitasunaren funtsa. Eukaristiarik gabe, nola sinetsi Jauna gurekin datorrela eguneroko borrokan? Eukaristiarik gabe, zer

sentidu eduki lezake igandero elkarrekin biltzeak? Eukaristiarik gabe eguneroko bizitzaren errealitate latzak irentsi egingo liguke barruko bizipoza.

Azken batean, Jaunaren maitasunaren egia ziurtatuta eduki dezagun, odoletan sinatu du Jainkoak bere maitasun-konpromisoa. Eta odola gauza serioa da, serioegia. Odola nekez bihur daiteke ohiturakeria. Odola nekez utzi daiteke galtzen. Eta Jainkoak bere odola jarri du konpromiso honetan. Jainkoaren presentzia ziurra da gure bizitzan, odoletan sinatu duelako. Jainkoaren uneoroko maitasuna ziurra da, odoletan sinatu duelako. Jainkoaren erabateko barkazioa ziurra da, odoletan sinatua delako.

Hori horrela izanik, nola galdu dugu, nola ari gara galtzen, iganderoko ospakizunaren sena? Zeri heltzen diote kristauek, iganderoko konpromiso-berritzeari heltzen ez badiote? Nola eusten diote aste osoko kristau-konpromisoari, konpromiso hori berritzen duen Eukaristia zokoratuta baldin badaukate? Zer ari zaigu gertatzen? Gauzei bere erorbidean aldats-behera joaten utzi behar al diegu? Ez al dugu zerbait egin behar, berriro ere iganderoko Eukaristiak bere garrantzia irabazi dezan?

Gauzak gaizki egiten ditugunean, ez dago zer esanik. Baina, gauzak ongi egin arren, iganderoko batzarra beheraka doala ikusten badugu, ez ote dugu zerbait berritu beharko gure ospakizunetan? Ez ote zaigu zerbait balio gebetu eta hustu gure moldeetan? Ez ote gabiltza garai bateko eskemekin eta ez ote ditugu bestelako eskema batzuk bilatu behar? Zer izan beharko lukeen? Ez dakit! Baina, gutxienez, zerbait pentsatu beharko genuke, sormen pixka bat jarriz oinarriko arazo honetan.

Izan ere, gaurko festaburuak, Jaunaren gorputz-odolen jai nagusiak, garbi erakusten digu Eukaristiaren funtsa: Erreinuko ardo berria eman

zaigu, ardo horren gozotan Jaunaren presentzia gertuan suma dezagun.

Eta gauzak okertzen zaizkigunean, guk espero ez genituen ezbeharrak datozkigunean, bizigiro zailean bizitzea tokatzen zaigunean, jakin dezagun Jaunak ez gaituela sekula bakarrik uzten. Jaunak ez gaituela sekula eskutik uzten. Konpromiso hori hartu zuen eta konpromiso hori odoletan sinatua utzi zuen.

Jainkoaren herriaren otoitza

Gizaki guztiak salbatzen dituen Pazkoa berrituko dugun mahai santua prestatu baino lehen, zuzen diezazkiogun Jainko Aitari gure otoitzak, entzungo gaituela uste osoz sinetsiz:

—Gotzainek eta apaizek bat egin dezatela Jaunarekin Eukaristian buru egiten dutenean, herri osoak ikus dezan horiengan, Bere izenean bildu dituen Kristoren irudi bizia.

—Kristau guztiok Eliza bakarraren batasunean Eukaristia ospatuko dugun eguna iritsi dadin, gizaki guztiak munduaren alde batetik besteraino Kristoren Gorputz-Odolen oparia eskain dezaten.

—Hilzorian dauden fededunek mundu hau bakean utz dezaten, eta Jaunaren promesak itxaronez eta Kristoren Gorputzak sendotuta zorianaren eta biziaren erreinura iritsi daitezen.

—Jaunak fedean eta maitasunean sendo gaitzan, espirituz eta egiaz gurtu dezagun Eukaristi Sakramentuan egiaz presente egiten den Kristo Jauna.

Ikus, Aita, begi onez Zure Semearen mahaian itun berria eskaintzera bildu den herria eta entzun gure otoitzak; garbi itzazu gure bihotzak, Bildotsaren mahaian eseri garenok aurrez goza dezagun zeruko Jerusalemen prestatuak daukazu betiereko Pazkoa. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

Oparigaien gainekoa

Emaiozu onez zeure Elizari, Jauna, batasunaren eta bakearen dohaina horien adierazgarri mistikoa baita ekarri dizugun eskaintza hau.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Egitera goazen diru-bilketa, Parrokiako Caritasen beharretan laguntzeko izango da. Horrela agerian jartzen dugu, Eukaristian Kristoren eskaintzarekin bat egitea, bizitzan behartsuei lagunduz gauzatzen dela.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Emaguzu, Jauna, orain hartu ditugun zure Gorputz eta Odol baliotsuez aurreratu diguzuna, zure jainkotasunaren betiereko gozotasunaz ase gaitezen. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.

